

TOLERANTZIA eta ERRESPETUA

Jardunbide egokiak FAMILIAN



Aurkezpena

Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak, herritarren artean, osasuna sustatzeko eta biztanleriaren bizitza kalitatea zein gizarte ongizatea hobetzeko helburua dauka. Horretarako, **ADIMEN EMOZIONALA ETA BIZIKIDETZA** Programarekin, haurrak direnetik beren adimen emozionala garatzeko gai izan daitezela eta bizitza kudeatzen ikas dezatela lortu nahi du. Beren buruarekiko kontzienteago izateko modu kreatiboak ikasiz, gatazkei aurre eginez, emozioak erregulatuz, modu kritikoan pentsatuz, eta horrela, bizi diren gizarteko kide aktibo eta arduratsuak izateko baliabideak dituzten pertsona helduak izatera iristea dauka helburu programak.

TOLERANTZIA ETA ERRESPETUA gaiari dagokionez, 3. mailan, tailer praktiko bat egin da, bertan ikasleek tolerantzia elkarbizitza positibo baterako ezinbestekoa dela uler dezaten lortu nahi izan da.

FAMILIAN ikasten direnez bizitza osoan izango ditugun **OHITURA** ETA balio gehienak, garrantzitsua da familiak ikastetxean egiten den lan horri babesa ematea.

Familiako kideek elkarri hitz egiteko modua zuzena denean eta jarrera adeitsua eta begirunetsua erakusten denean, balio garrantzitsu hori, tolerantzia, bultzatzen da.



Tolerantzia eta errespetua

Tolerantzia besteei entzuteko, besteak onartzeko eta bizitza ulertzeko eta bizitzan jarrera hartzeko modu desberdinak balioesteko ahalmena da.

Tolerantziak oso zeregin garrantzitsua betetzen du adingabeen eta haien berdinen arteko eta adingabeen eta haien familiaren arteko harremanetan. Oso garrantzitsua da adingabeek beren senide eta lagunak iritziak entzuten ikastea, haien irizpideak onartzea (nahiz eta beren irizpideen desberdinak izan) eta jolas edo jarduera bat egitean edo ikasgela batean ikaskideekin ados jartzea. Tolerantziak talde batean behar bezala integratzen laguntzen die.

Adingabea ez da tolerantziarekin jaiotzen. Adingabearen jokabide naturala zera da, dena bereganatzen saiatzea eta denak berarekin ados egotea nahi izatea. Hori dela-eta, ezinbestekoa da tolerantzia ikasteko prozesua goiz hasia. Pertsona bat nekez izango da tolerantzia gurasoak tolerantzia ez badira, gainerakoak errespetatzen ez badituzte edota aurreiritzi ugari badituzte.

Tolerantzia izateak ez du esan nahi jokabide guztiak onartu behar direnik. Gainerakoak errespetatzen ez dituzten edo gainerakoei min ematen dieten jokabideak (hala nola pertsona gaiztoa izatea, norbait jazartzea edota gizarte-arauak urratzen dituzten jokabideak, hala nola lapurtzea) ezin dira onartu. Tolerantzia ez datza okerreko jokabideak onartzean, pertsonak diren bezalakoak onartzean baizik.



Tolerantzia erakusteko, beharrezkoa da...

😊 ARAUAK ETA MUGAK EZARTZEA, ETA BALIO POSITIBOAK INDARTZEA

Arauek eta mugek segurtasuna eta konfiantza ematen diete seme-alabei, eta denak balio ez duela erakusten diete.

😊 SENTIMENDUEI BURUZ HITZ EGITEA

Gatazkak daudenean, norberaren zein gainerakoen sentimenduak ezagutzen eta adierazten laguntzen du. Adibidez: zer gertatzen zaio? Zure ustez, zergatik dago horrela? Nola lagun diezaiokezu?...

😊 ENTZUTE AKTIBOA PRAKTIKATZEA

Entzuten jakitea oso garrantzitsua da. Txiki-txikitatik jakin behar dugu isilik egoten norbaitek hitz egiten duenean. Horregatik, oso garrantzitsua da aurrez aurre jartzea eta honelako galderak egitea: ulertu al duzu? Ados al zaude? Era horretan, komunikazio-trebetasunak eskuratuko dituzte.

😊 FAMILIA GIROAN JOLASTEA

Mahai-joko tradizionalen bidez, txandak errespetatzen ikas dezakete.

😊 BESTE KULTURA BATZUK EZAGUTZEA

Beste kultura batzuk ezagutzeak beste ohitura batzuk eta beste bizimodu batzuk ezagutzeko aukera ematen digu. Era horretan, denak berdinak ez garela eta denok berdin jokatzeko ez dugula ulertzen dute adingabeek.

😊 GAINERAKOEI ISEKA EZ EGITEN ERAKUSTEA

Oso garrantzitsua da adingabeei pertsonak desberdinak garela, aniztasunak eta desberdintasunak aberastu egiten gaituztela eta, beraz, errespetatu egin behar ditugula helaraztea.

